



## **ERANSKINA. Laguntza-txostena Caritas Euskadiren 2019ko memoriaren laguntza txostena**

### **COVID 19aren aurretik**

*Euskadiko gizarte-bazterketari eta garapenari buruzko II. Txostenaren datuen arabera (Foessa Fundazioa), 2018an, gure lurraldean 334.000 pertsona bazterketa egoeran zeuden (euskal biztanleen %15,2) arazo sozialak metatzearen ondorioz, hala nola; pobrezia ekonomikoa, etxebizitza eskuratzeko eta mantentzeko zailtasunak, langabezia edo enplegu eskasa, eta/edo babes-sare sozialen falta.*

*Horietatik, 194.000 pertsona bazterketa egoera larrian zeuden, 80.000 pertsona gehiago 2013ko datuekin alderatuta. Dagoeneko zazpi pertsonatik bat ziren Euskadin.*

*Osasun eta gizarte-larrialdiaren ondorioz, lehen ere egoera txarrean zegoen euskal biztanleriaren %15,2 horrek, bere bazterketa egoera bikoiztu egingo du bizitzako dimentsio guztietan, diru-sarreretan, enpleguan, etxebizitzan, laguntza-sarean.*

*Bestalde, txosten horrek adierazten zuen, 2008ko krisialdia izan zenetik eta azken urteetako susperraldi sozioekonomikoari esker, 40.000 pertsonak gainditu zutela gizarte-bazterketako egoera, eta gizarteratze prekarioan zeuden 360.000 pertsonen taldean osatzen zuten (euskal biztanleriaren %28,2). Pertsona-talde hori gizarteratze-adierazleak berreskuratzen ari zen, baina "hurrengo astinaldiak bazterketara amilduko zituen" beldur ziren.*

### **Beste bolada bat, COVID-19 izeneko krisi sozioekonomikoa**

*Gizarte-egituraren datu horietan oinarrituta, krisi sakon bat iritsi da, eta suspertzen ari ziren pertsonen eta familien aurrerapenek atzera egingo dute, eta gizarteratze-prozesuetan edo gizarte-egoera hobetzeko prozesuetan zeudenak amildu egingo dira.*

*2019an, gizarte-bazterketako biztanleria horrek (euskal biztanleen %15,2k), %45,9k lan egiten zuen, eta ez zuen diru-sarrera nahikorik gizarte-krisi horren aurretik bizitza behar bezala garatzeko. Beraz, abiapuntu gisa, enplegua ez zen talde ahulenentzat gizarteratzeko bermea. Egungo krisiak enpleguan izango duen eraginak, lehenik eta behin, eta modu biziagoan eragingo die talde horiei, lan-prekarizazioa handituz, eta langabeziak gizartean duen estaldura urriagatik. Kezkatu egiten gaituzte familia egoerek, ABEEE estaldura desagertzen denean.*

*Gainera, Euskadiko gizarte-arazo zabalduena azpimarratzen du, etxebizitza egokia eta segurua eskuratzea eta mantentzea. Euskadiko biztanleriaren % 22k zailtasunak ditu*

alor horretan; etxebizitza izatea beti da behar-beharrezkoa, eta are gehiago larrialdi honetan.

### **Krisialdi honek kronifikatutako aurpegiak**

Familiak eta, batez ere, bakarrik dauden eta seme-alaben ardua duten emakumeak, lanbide-prestakuntza gutxi dutenak, langabezia daudenak edo aldez aurretik enplegu prekarioak zituztenak (etxe-zerbitzua edo ostalaritza), laguntza sozial eta ekonomiko sare txikia edo batere ez dutenak. Aurrezkerik gabeko familiak, EEZPren (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) kolapsoaren aurrean, Caritasi laguntza eskatu behar izan diotenak. Diru-iturririk gabeko familiak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren sistematik kanpo daudenak zenbait arrazoiengatik (erroldatuta gutxieneko denbora ez betetzeagatik, beren bizilekuarekin bat ez datorrelako, edo alokairu-kontratua ez dutelako). Horrez gain, orain, zaintza-lan guztiak egin behar dituzten familiak, konfinamendua arintzean lana eta familia bateragarri egiteko aukerarik ez dutenak, eta zailtasun handiak dituztenak seme-alaben hezkuntza-prozesuetan laguntzeko. Zentzu honetan, Caritasek ere lagundu die pandemia horretan, azaleratu den prostituzioari, eta laguntza eske hurbildu diren emakumeei.

Etixerik gabeko pertsonak, egokitutako baliabide edo ostatuetan, geletan edo hostaletan konfinatuta egon direnak, zer gizarte-laguntza eskuratu dezaketen ez dakitenak. Egoera ahulenean dauden pertsonak dira, diru-sarrerarik gabe, bizilekurik gabe eta osasun-arazoak ere badituztenak, eta laguntza handia behar dutenak. Gainera, prestakuntza eta lan-prozesuak eten zaizkie, baita gizarte-baliabideak ere, balorazioak gelditu baitira, eta zailtasun eta premia handia dute osasun-jarraipenak egiteko.

### **Datozkigun erronkak**

Baliabide publikoak indartzea, elikagaiak eskuratzeko gutxieneko diru-sarrerak ziurtatu, bai eta osasun-zerbitzuak, hezkuntza, etxebizitza eta enplegu babestua eskuratu ahal izateko. Horretarako, askotan, administrazio-baldintzak malgutu beharko dira, eta aintzat hartu gizarte-ondasun horietatik urrutien dauden familien abiapuntua; prozesu horretan, gizarte zibil antolatua eta herritarrek, oro har, parte-hartze aktiboa izango dute. (Justiziako giza eskubideen ikuspegia).

Komunitarioa indartzea, hau da, krisialdiaren inpaktu sozial eta emozionalan laguntzeko gizarte-sareak. Kontua ez da soilik diru-sarrerak bermatzea, baizik eta laguntza-sareak eratzea, osasun-alarmak eta krisialdi ekonomikoak eragiten dituen bakardadean, beldurrean eta larritasunean laguntzeko. Komunitatea, gizarte justu eta kohesionatuago bat eraikitzeke eraldaketa leku eta elementu gisa.

Giza balioak indartu, gure gotzainek azken gutun pastoralean pandemiaren aurrean esaten duten bezala: "Murgilduta gauden krisialdi ekonomiko eta sozialak ahaleginak areagotzea eskatzen du, austeritate pertsonalaren, eskuzabaltasunaren eta konpromisoaren aldetik. Jainkoaren Herri osoak parte hartu behar du benetako elkartasun-ekonomia bat ezartzeko, non gizakia ekonomia eta lan-jardueren erdigunea

izan dadin. Lan egin behar dugu, “bazterkin piloa”, behartsuenak, ahulenak edo bazterketa-arriskuan daudenak, alde batera ez uzteko” (34). “Une egokia da ekonomia oinarritzen den egiturak berraztertzeke, egin beharreko zuzenketak eginez, pertsona, beti, jarduera ekonomikoaren erdigunea izan dadin” (35)<sup>[1]</sup>

---

<sup>[1]</sup> Zorionbideak pandemia-garaian. Euskadiko eta Nafarroako gotzainen gutun pastoral bateratua. COVID 19ak eragindako osasun, ekonomia eta gizarte-larrialdiaren aurrean, 2020ko maiatzaren 13an